



# **OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA**

## **IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

**2014ko ekainean onartua**

**Azken aldaketa: 2024ko apirilaren 23a**

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| <b>SARRERA</b> .....   | 5  |
| <b>OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAREN PRINTZIPIOAK:</b> .....  | 5  |
| <b>IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK</b> .....  | 6  |
| 1. artikulua.....  | 6  |
| 2. artikulua.....  | 6  |
| 3. artikulua.....  | 13 |
| <b>IKASLEEN BETEBEHARREN URRAKETAK</b> .....   | 14 |
| 4. artikulua.....  | 14 |
| 5. artikulua <i>Jokabide desegokiak</i> .....  | 15 |
| 6. artikulua <i>Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak</i> .....                                      | 16 |
| 7. artikulua <i>Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak</i> .....                  | 17 |
| 8. artikulua.....  | 19 |
| <b>HEZKUNTZA-NEURRI ZUZENTZAILEAK</b> .....  | 19 |
| 9. artikulua <i>Jokabide desegokiak zuzenketa</i> .....  | 19 |
| 10. artikulua <i>Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa</i> .....                           | 20 |
| 11. artikulua <i>Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa</i> .....       | 21 |
| 12. artikulua <i>Ikastetxez aldatzeko proposamena</i> .....  | 21 |
| 13. artikulua <i>Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak</i> ..... | 22 |
| <b>JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK</b> .....  | 24 |
| 14. artikulua.....   | 24 |
| 15. artikulua <i>Prozedurarik gabe onartutako neurri hezitzaileak</i> .....                                  | 24 |
| 16. artikulua <i>Prozedura etetea adiskidetzegatik</i> .....   | 24 |
| 17. artikulua <i>Prozedura etetea erreparazioa egiteagatik</i> .....   | 25 |
| 18. artikulua <i>Prozedura etetea familia-eremuan zuzentzeagatik</i> .....                                   | 25 |
| 19. artikulua <i>Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea</i> .....                                   | 25 |

|   |           |
|---|-----------|
| 20. artikulua Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak .....  | 26        |
| <b>NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK .....</b>  | <b>26</b> |
| 21. artikulua.....  | 26        |
| 22. artikulua.....  | 26        |
| 23. artikulua.....  | 27        |
| 24. artikulua.....  | 27        |
| 25. artikulua Neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena duen organoa.....   | 27        |
| 26. artikulua Aldaketak eta erreklamazioak egiteko modua eta epea. ....   | 28        |
| 27. artikulua Erreklamazioak eta errekurtsioak.....   | 28        |
| <b>JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEKO PROZEDURA .....</b>   | <b>28</b> |
| 28. artikulua.....  | 28        |
| <b>BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN<br/>JOKABIDEEN ZUZENKETARAKO OHIKO PROZEDURA.....</b> | <b>29</b> |
| 29. artikulua.....  | 29        |
| 31. artikulua Jakinarazpena.....  | 30        |
| 32. artikulua Behin-behineko neurriak.....  | 30        |
| 33. artikulua Entzunaldiaren izapidea.....  | 30        |
| 34. artikulua Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.....   | 31        |
| 35. artikulua.....  | 32        |
| 36. artikulua Eskola Kontseiluari erreklamazioa aurkeztea .....   | 32        |
| 37. artikulua.....  | 32        |
| 38. artikulua.....  | 33        |
| <b>APARTEKO PROZEDURA.....</b>  | <b>33</b> |
| 39. artikulua Aparteko prozedura erabili behar den kasuak.....  | 33        |
| 40. artikulua Aparteko prozedura hasteko epea .....   | 33        |
| 41. artikulua Hasteko egintzaren edukia .....   | 33        |
| 42. artikulua Instruktoarearen izendapena. ....   | 34        |
| 43. artikulua Jakinarazpenak.....   | 34        |

|   |           |
|---|-----------|
| <i>44. artikulua Instruktoarearen ezespena.....</i>   | <i>34</i> |
| <i>45. artikulua Instruktoarearen jardunak .....</i>  | <i>34</i> |
| <i>46. artikulua Fiskaltzarako jakinarazpena .....</i>                                      | <i>35</i> |
| <i>47. artikulua Entzunaldiaren izapiderako zitazioa .....</i>                              | <i>35</i> |
| <i>48. artikulua Entzunaldiaren izapidea .....</i>  | <i>35</i> |
| <i>49. artikulua Ebazpen-proposamena .....</i>  | <i>36</i> |
| <i>50. artikulua Aparteko prozedura amaitzeko epeak.....</i>                                | <i>36</i> |
| <i>51. artikulua Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena .....</i>                        | <i>37</i> |
| <b>ERANSKINAK .....</b>   | <b>38</b> |
| <b>I. ERANSKINA: EBALUAZIO PARTZIALEKO KALIFIKAZIOAREN BERRIKUSPENA/ERREKLAMAZIOA</b>       |           |
| <b>ESKATZEKO ORRIA .....</b>  | <b>38</b> |
| <b>II. ERANSKINA: AZTERKETA BATEN FOTOKOPIA ESKATZEKO PROZEDURA.....</b>                    | <b>40</b> |
| <b>III. ERANSKINA: AZTERKETEN FOTOKOPIA ESKATZEKO ORRIA.....</b>                            | <b>41</b> |
| <b>IV. ERANSKINA: AZKEN KALIFIKAZIOEN KONTRAKO BARNE-ERREKLAMAZIOAREN PROZEDURA</b>         | <b>42</b> |
| <b>V. ERANSKINA: AZTERKETAK ATZERATZEAREN INGURUKO PROTOKOLOA.....</b>                      | <b>44</b> |
| <b>VI. ERANSKINA: IKASLEEN ASANBLADA DEIALDIA .....</b>                                     | <b>48</b> |
| <b>VII. ERANSKINA: ASANBLADA AKTA .....</b>   | <b>49</b> |
| <b>VIII. ERANSKINA: 2. MAILAKOEN IKASBIDAIAREN PRESTAKUNTZA .....</b>                       | <b>50</b> |
| <b>IX. ERANSKINA: IRAKASLE EDO IKASTOLAKO BESTE LANGILE BATEK IKASLEEN ESKUBIDEAK USTEZ</b> |           |
| <b>URRATZEN DITUENEAN BETE BEHARREKO PROTOKOLOA .....</b>                                   | <b>51</b> |
| <b>X.ERANSKINA: MUGIKORREN ETA ERLOJU ADIMENTSUEN ERABILERA EGOKIRAKO PROTOKOLOA</b>        |           |
| <b>.....</b>  | <b>54</b> |

# **OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA**

## **IKASLEEN ESKUBIDE ETABETEBEHARRAK**

### **SARRERA**

Oiartzo Ikastola euskal hezkuntza erakundea da eta gizaki ezberdinez osaturiko komunitatea da; bertan, guraso, ikasle eta irakasleek parte hartzen dute eta hartu behar dute, eta betebeharrak eta eginkizun desberdinei aurre egiteko konpromisoa dute elkarbizitzarako adosturiko arauen barnean. Talde horiek osatzen dituzten pertsonak ingurukoari buruzko ideia, ikuspuntu eta izaera diferentea izan dezakete; beraz, Oiartzo Ikastolak komunitate anitza dela uste du eta, hortaz, erakunde demokratiko gisa gobernatuko da. Arautegi honek elkarbizitza bermatzeko unean oinarritako tresna izan behar du, eta izaera HEZITZAILE eta ELKARZAINZAILA izango du, GIZA BALOREAK aberasteari begira zuzenduko delarik. Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Eskubide horiek beteko dira Oiartzo Ikastolako gainontzeko kideen eskubideek merezi duten aitortua eta errespetua kalte gabe. Hezkuntza erakundeko kide guztiek aitortu eta errespetatu behar dituzte arautegi honetan jasotako eskubide eta betebeharrak.

### **OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAREN PRINTZPIOAK:**

- 1) Arautegiaren helburu nagusiak heziketa helburuak izatea.
- 2) Printzipioak prozeduren gaitasun kontuan edukitzea; pertsonak printzipioen gaitasunetik.
- 3) Parte interesatu (partaide) guztiak prozesuen diseinu eta garapenean barne hartzea.
- 4) Landu nahi diren balioak presente eduki eta estimatzea analisi eta jardura guztietan.
- 5) Aplikatzekoan, irakaste eta ikaste momentua kontuan edukitzea: gorabehera unek, elkarbizitza sendotzeko eta garatzeko aukera gisa hartzea eta bideratzea.
- 6) Arauen aplikazioa bakoitzaren autonomia eta taldearen aurreko erantzukizuna uztartzeko baliabide gisa kudeatzea.
- 7) Heziketa integralaren osagai izanaz, pertsona bakoitzak bere ekintzen bidez une bakoitzeko portaeraren ikasketan sakontzeko behar adina aukera eskaintzea.

Ikasturte bakoitzaren hasieran hezkuntza-komunitate guztiak zer jokabide zuzenduko diren jakin dezan, ikastetxeko gobernu-organismoek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren edukia eta ikastetxearen Barne Araudi honetan bildutako bizikidetzara-arauek ezagutzera eman edo gogoraraziko dizkiete irakasleei, ikasleei eta haien guraso edo legezko ordezkariari, hartarako komenigarrien deritzoten prozeduraren bidez.

Dokumentu hau ulertzeko garaian ezadostasunik sortuko balitz, Zuzendaritza eta Eskola Kontseiluko kideen artean argitu beharko litzateke eta, azken beltzean, Oiartzo Ikastola Fundazioa Patronatuak erabaki beharko luke.

Dokumentu honetako testuan aldaketarik proposatu nahi izanez gero, kurtsoan zehar bildu eta landu beharko litzuke interesatua dagoen orok, eta ikasturte amaieran Eskola Kontseiluan aurkeztu eta argudiatu. Gero, onartutako aldaketak Patronatuaren oniritzia izango balu, hurrengo ikasturtetik –irailetik– indarrean egongo litzateke.

## **IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **1. artikulua**

1. Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Eta beren adinaren eta egiten dituzten ikasketen mailaren arabera baliatuko dituzte eskubide eta betebeharrak horiek.
2. Ikasleek beren eskubideak baliatuko dituzte, beren betebeharrak betetzea eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak aintzat hartu eta errespetatzea bazter utzi gabe.
3. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikasleek eskubideak errespetatu behar dituzte. Besteen eskubideen errespetuak zehaztuko du ikasleek beren eskubideak baliatzeko izango duten muga, besteak beste.
4. Ikastetxeko gobernu-organismoek eta irakasleek ikasleek eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak zorrotz betetzen direla bermatuko dute.

### **2. artikulua**

Ikastetxeko ikasleek honako eskubide hauek dituzte:

- a) Beren nortasuna guztiz garatzeko lagungarria izango den hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea.
- b) Ikasle adingabeen eskubidea ikastetxearen eta irakaslearen berehalako arreta jasotzeko.
- c) Ohorerako, bizitza pribaturako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen gaineko ikastetxearen babesa izateko eskubidea.
- d) Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aitortuak eta balioetsiak izateko duten eskubidea honela bermatuko da:

d.1) Ikasturte hasierako lehenengo saioetan irakasle bakoitzak gaiaren curriculumak ikasleei zehaztuko diela bermatuko du ikastolak. Beraz, irakasle guztiek dagozkien gaiaren edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak azalduko dizkiete ikasleei, "programazio laburtuaren" bidez nahiz beste idatzi baten bidez.

d.2) Ikasleei eta, adingabeak badira, haien guraso edo legezko ordezkariak informazioa emango zaie ebaluazio bileren ondoren horretarako aurreikusitako bitartekoen bidez.

d.3) Aldez aurretik eskatuta, azken kalifikazioan eragina izango duten lan, ariketa eta proba guztiak ikusteko aukera izango da, betiere irakasleek zuzendu ondoren. Kurtso bukaera hurbildu ahala, ikasleei egutegi batean zehaztuko zaie ekimen guztien berri (azterketa egunak, errekupeazio eta selektibitateko errepeaso eskola egunak, emaitzak jasotzeko egunak eta orduak...) Egutegi horretan, aipatutako informazioarekin batera, lan eta azterketa zuzenduak ikusteko hitzordua ere emango zaie, eta beharrezkoa den kasuetan, erreklamazioetarako ere bai.

d.4) Proba horiek berrikusteko eta fotokopiatzeko eskubidea (I.Eranskina II.Eranskina eta III. Eranskina), eta azken kalifikazioen aurkako erreklamazioak jartzeko aipatutako barne-prozedura (IV.Eranskina) horri heldu beharko zaio, hala badagokio, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan erreklamazioa egin baino lehen.

d.5) Ikasleak azterketak noiz diren jakin behar du, eta jarritako egun eta orduan egin beharko ditu. Azterketa egutegiaren berri, gutxienez 7 egun lehenago helaraziko zaie ikasleei.

d.6) Gaixorik egon denak azterketa hori errekupeazioarako jarritako egunean edo irakasleari ongi dagokionean ere egin dezake, eta gaintu ezean, beste aukera bat emango zaio.

d.7) Kultura edo kirol erakunderen batean partaide den ikasleak azterketa egunen bat aldatzeko aukera izango du erakunde horren eskariz eta zuzendaritzak onartzen badu (V.Eranskina).

e) Eskola- eta lanbide-orientazioarako eskubidea.

f) Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea.

f.1) Eraso fisiko edo moral larrien kasuan, tutore nahiz zuzendaritzak zehaztuko dute kasuan-kasuan egin beharreko bidea.

f.2) Ikastetxearen eremuan nahiz ikastetxeak eskainitako zerbitzuetan, klase orduetatik kanpo arazorik -jokabide desegokirik, bizikidetzaren aurkako

jokabiderik, edo bizikidetza larriki kaltetzen duten jokabiderik- gertatuko balitz, honela bideratuko litzateke:

-Arazoaren berri eman irakasleren bati.

-Irakasle horrek bideratuko du arazoaren konponketa, bere kabuz, nahiz tutore edo zuzendaritzaren bidez, kasua kasu, eta arazo edo urraketaren mailaren baitan.

g) Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

h) Ikastetxean biltzeko eta adierazpen-askatasunerako eskubidea.

h.1) Asanbladak egiteko eskubidea

h1a) Batxilergoko ikasleek biltzeko eskubidea izango dute. Bilerak gimnasioan eta jolas- garaietan egingo dira. Bilerak egiteko denbora jolas-ordukoa izango da, eta ezin izango da luzatu.

h1b) Ikasgeletako ordezkariak bildu beharko dute eta bilera-deia egin behar den erabakiko dute. Bileraren berri eta biltzeko arrazoiak idatziz eman beharko dizkiote Zuzendaritzari horretarako dagoen inprimakian (VI. Eranskina). Ikasleek borondatez hartuko dute parte bileran.

h1c) Bileran hartzen diren erabakiak baliozkoak izan daitezen, une horretan zentroan dauden ikasleen erdiak gehi batek egin behar du gutxienez proposamenaren aldeko bozka. Gutxiengoaren iritzia begirune bera izango du.

h1d) Botoa isilpekoa izango da.

h1e) Botoak Zuzendaritzaren aurrean jaso eta zenbatuko dira.

h1f) Botoak zenbatu ondoren, ordezkariak atxikirik doan inprimakian beteko dute akta (VII. Eranskina). Bertan gaia, argudioak, botazioaren arrazoiak eta emaitzak agertuko dira. Akta hori Zuzendaritzari eman beharko diote bilera eskatzeko inprimakiarekin batera.

h1g) Zentroko Zuzendaritzak bileraren funtzionamendu egokia exigitu eta ziurtatuko du.

h1h) Bilerak egin bitartean, deialdiaren egileak izango dira gimnasioaren erabileraren arduradun.

h.2) Klasera ez joateko proposamenez

h2a) Nolanahi ere, **KLASERA EZ JOATEKO PROPOSAMENA** ikasgeletako ordezkarien bidez egin beharko da, gorago zehaztutako baldintzak betetzen dituen bilera egin ondoren, haien ekimenez edo, gutxienez, zentroan matrikulatutako ikasleetako %5ak eskaturik.



h2b)

h2b1) Proposamena, behar bezala arrazonatuta, idatziz egingo da diegileek aurreikusitako data baino bi lanegun lehenago gutxienez, eta ondorengo datuak zehaztuko dira: deia nork egiten duen, data, ordua eta programatutako ekintzak. Salbuespenez, lanegun bat lehenago egin ahalko da; horretarako, proposatzen dutenek presa horretako arrazoiak argitu beharko dituzte. Erabateko salbuespen egoera erabateko irtenbidez osatuko da.

h2b2) Klasera ez joateko proposamenaren botazioa klasera joango ez liratekeen egunean bertan egin behar da, egun osorako proposamena ez denetan.

h2c) Ordezkariek berehala eramango diete proposamena Zuzendaritzari eta zentroko ikasleei.

h2d) Osagarriak

- Eskolara ez joateak ez du ondoriorik izango diziplina kontuan gorago aipatutako baldintzak betetzen direnean, baina gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.
- Era guztietara, klaseetara joateko erabakia hartzen dutenei beren eskubidea bermatuko die Zentroak.
- Ikasleak klaseetara ez joateko aitortzen zaien eskubideaz baliatzen direnean programaren zati bat kaltetua geratuko balitz ere, irakasleek ez dute ezinbestean programaren zati horren azalpena errepikatu beharrik.
- Era berean, ez da aldatuko azterketaren egun edo ordurik klasera ez joateko eskubideaz baliatzeagatik. Beste azterketak edo kontrolak dataz alda daitezke, baldin eta klasera ez joateko proposamenaren deialdia azterketa eguna baino bi aste lehenago egina bada.
- Ikasleek ezin dute Ikastolako esparrua erabili protesta ekintzetarako.
- Ikasleak eskubide honen erabilera egiten ari direnean edozein ekintza eskolarretik kanpo egongo direnez, Zentroa ikasle horien arduraz libre geldituko da eta guraso edo legezko arduradunak izango dira horien erantzule. Honen harira, gurasoek edo legezko tutoreek baimena propio (idatziz) emango diote semeari/alabari horrelako ekimenetan parte hartu ahal izan dezaten, ikaslea adinez nagusia denetan ez beste.
- Ordu lektiboen galera handiegia gertatuz gero, Eskola Kontseiluak

ikasketaprogramak bete daitezen beharrezkoak diren neurriak har ditzake.

### h.3) Idatziko jakinarazpenez

h3a) Idatzizko jakinarazpenen helburua informatzea da.

h3b) Jakinarazpenak ikasle nahiz irakasleek jar ditzakete.

h3c) Ikasleek leku jakin bat izango dute (beheko sarreran eta goiko sarreran) bereziki gazteei zuzendutako ekitaldi, ospakizun, bilera eta abarri buruzko informazioa jar dezaten.

h3d) Zentroko Zuzendaritzak antolatu behar du idatzizko jakinarazpenak jartzeko euskarri egokia, eta berea da leku hori prestatzeko ardura. Bestalde, jakinarazpenak horretarako lekuan bakarrik jarriko dira, inoiz ez ikasgeletan.

h3e) Testuek batez ere euskaraz izan behar dute.

h3f) Ezin da jarri ikastola barruko organo edo pertsonen aurkako jakinarazpenik.

h3g) Ezin izango dira erabili inongo erakunde politikorentzat botoa edo kideasuna eskatzeko, ez eta publizitate komertziala edo alderdietakoa jartzeko ere.

h3h) Iritzi, kritika edo azalpenak ager daitezke, baina hizkera eta forma zainduz, hau da, inorentzat edo inongo erakunderentzat deskalifikatzaileak izan gabe.

h3i) Jakinarazpena jartzen duenak du berari buruzko erantzukizun osoa. Zuzendaritzak araudiarekin bat datorrela ikusi ondoren jarriko dira eta kopia bat eman behar zaio.

h3j) Pasatako data duten jakinarazpenak edo, datarik ez dutenak, aste bete pasa ondoren ezinbestean kendu behar ditu jarri dituenak.

h3k) Arau hauek interpretatzerakoan adostasunik eza sortzen bada, Eskola Kontseiluko kideen artean argitu beharko da. Hauek ados jarriko ez balira, azken beltzean Eskola Kontseiluak erabaki beharko luke. Adostasun eza sortzen denetik prozesuak dirauen bitartean ezin izango da jakinarazpena jarri eta lehenagotik jarrita balego kendu egingo litzateke.

i) Elkartzeko eskubidea. Ikasleek hezkuntzazko edo prestakuntza helburua duten nahiz beste edozein gairen inguruan hitz egiteko elkartzeko eskubidea dute, eta baita 2. mailakoan ikasbidai prestatzeko biltzekoa ere (VIII.Eranskina). Horretarako, eta beti ere jarduera akademikoa eten gabe, ikastolak honako baliabideak utziko dizkie:

- 1) Horretarako bi gela ("Denda" eta "Ikasle-gela" deiturikoak).
- 2) Azterketa garaietan, zenbait gelaren erabilpen librea.
- 3) Informatika-gelak, irakasleren baten ardurapean.

Gela horien erabileraren arduradun erabiltzaileak berak izango dira.

j) Ikastetxearen bizitzan eta funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea. Horretarako ikasleordezkariak hautatuko dira, honela:

**j.1). Ikasgelako ordezkariak**

j1a) Ikasturte hasieran, tutoreak dokumentu honen muina azaltzen dienean ikasleei, gelako ordezkariaren nondik norakoak jakinaraziko dizkie. Berak sustatuko du ordezkarien aukeraketa eta duen garrantziaz jakitun egingo ditu ikasleak.

j1b) Ikasgela bakoitzekoek hautatuko dituzte, eta ikasgelako ordezkari eta bozemaile izango dira.

j1c) Ikasturtea hasi eta lehenengo hilabetearen barruan egingo da hautaketa: ikasgela bakoitzak ordezkari bat eta ordezkariordea hautatu behar ditu. Bozketa tutorearen ardurapean egingo da isileko boto bitartez.

j1d) Ordezkari berriak hautatu bitarteko hamabostaldian, aurreko urtean ordezkari izandakoek behin-behinean jardungo dute lan horretan.

j1e) Ordezkariaren betebeharrak hauek dira:

- Funtzionamenduan eta hezkuntza gaietan sortzen diren behar eta arazoetan ikasgelako ordezkari izango dira, irakasle, tutore eta zuzendaritzaren aurrean.
- Ordezkarien bileretan parte hartuko dute.
- Ikasgelako kezkak jaso eta bideratuko dituzte.
- Ordezkari bileretan esandakoaren berri ikasgelari emango diote.
- Ikastolako ekintza orokorretan ikasleen partaidetza bultzatuko dute.
- Beharrezko denean, bitartekari lana egingo dute irakaslearen eta ikasgelaren artean.

j1f) Ordezkari kargua ikasturte beterako da.

**j.2) Mailako ordezkariak**

j2a) Ikasturtea hasi eta lehenengo hilabetearen barruan egingo da hautaketa: maila bakoitzak ordezkari bat eta ordezkariordea hautatu behar ditu. Bozketa

tutorearen ardurapean egingo da isileko boto bitartez.

j2b) Mailako ordezkariak betebeharrak dituzte:

- Eskola Kontseiluko partaide izatea guraso eta irakasleekin batera.
- Ikasleen proposamenak eta ekimenak bultzatzea Eskola Kontseiluan.
- Eskola Kontseilura informazioa eman eta bertan esaten denaren berri ikasgelako ordezkariari ematea.

j.3) Egokitzapenak

Ordezkariren batek bere zeregina egoki beteko ez balu, ordezkatzeko duen estamentuakatzera boto lezake bere izendapena, eta ordezkaria izendatu.

k) Informazioa erabiltzeko eskubidea.

k.1) Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

k.2) Ikastolako gobernu-organismoek beren eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

l) Aukera-berdintasunerako eskubidea.

l.1) Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, beti ere lortzen diren bitartekoen baitan.

l.2) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskubide hori bermatzeko, ikasleen premiei egokitutako laguntza-politika ezarriko du, baita integrazioa eta hezkuntza-premia berezia erantzutera bideratutako neurri hezigarriak ere.

m) Gizarte-babeserako eskubidea.

m.1) Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia ezbeharren edo istripuen kasuan.

m.2) Osasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera dituzten eskubideak alde batera utzi gabe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezkoak diren baldintza akademiko eta ekonomikoak ezarriko ditu familia ezbeharra, istripua edo gaixotasun luzea izan duten ikasleek beren ikasketari eutsi eta ikasketak amaitzeko edo geroko ikasketari heltzeko aukera izan dezaten.

m.3) Ikastolak babes-neurriak hartu beharko ditu berdinen arteko tratatu txarren

kasuetan eta bereziki eskola-jazarpen eta emakumeen aurkako erasoen kasuetan.

### 3. artikulua

Ikastetxeko ikasleek honako betebeharrak dituzte:

- a) Garapen handiena lortzeko ikasi eta ahalegina egiteko betebeharra. Ikasleak era egokian egon behar du irakaslearen edo ikaskideen azalpenei jarraitzeko eta bere edo besteen komunikazio eta ikaste- irakaste-prozesuak ez oztopatzeke.
- b) Prestakuntza-zereginetan parte hartzeko betebeharra.
- c) Bertaratzeko betebeharra. Betebehar hori honela gauzatuko da:
  - c.1) Eskola guztietan izan behar du ikasleak. Asistentzia eskola-orduro kontrolatuko du irakasle bakoitzak eta hutsuneen berri emango dio tutoreari.
  - c.2) Tutoreak kontrolatuko du ikasle bakoitzaren bertaratzea, eta behar bezala argitu gabeko hutsuneen berri emango die gurasoei edo arduradunei astero.
  - c.3) Ikasleren bat ikastolara etorri ezin denean, gurasoek edo arduradunek ezin horrenberri eman behar diote tutoreari telefonoz edo agiri baten bidez. Eredu bat banatuko da ikastolara etortzerik ez denerako; horren bidez guraso edo arduradunek jakinarazi beharko diote tutoreari, ahal dela hutsunea egin aurretik eta, ezin denean, ikaslea eskolara azaltzen den lehenengo egunean. Gorputz-hezkuntzako saioretan ere ez da hutsik onartuko osasun- arazorik ezean. Osasun arazo horiek ere gurasoen edo medikuaren agiriaren bitartez azaldu beharko dira.
  - c.4) Azterketaren batera etorri ezin den ikaslearen gurasoek edo legezko tutoreek azterketa egunean bertan goizean goiz dei edo idatzi behar dute ikastolara ezin hori azaltzeko tutoreari.
  - c.5) Tutoreari dagokio agiriak onartzea, eta, kasuaren arabera, Zuzendaritzaren esku utz dezake.
  - c.6) Ekaineko eskoletara derrigor etorri beharra dute hala dagokien ikasleek, erreperazio klaseak izan nahiz selektibitateko erreperazio klaseak izan.
  - c.7) Asistentziarekiko joera kezagarria bihurtuz gero, Zuzendaritzak beharrezko irizten dituen erabakiak hartuko ditu. Arazoa konponduko ez balitz, Eskola Kontseiluak hartuko du arazoaren ardura.
  - c.8) Eskoletara sartzeko ordua zaindu egin behar da. Puntualtasun ezaren berri ere eman behar dio ikasleak tutoreari.

d) Bizikidetzaren ahalbidetzeko betebeharrak. Ikasle orori begirunea zor zaio eta, era berean, ikasleek ere zentroko gainontzeko kide guztiak errespetatu behar dituzte: ikaskide, irakasle eta bestelako langileak. (Ikus IX. Eranskina irakasle edo ikastolako beste langile batek ikasleen eskubideak ustez urratzen dituenetan bete beharreko protokoloaren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero).

e) Hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatzeko betebeharrak.

f) Eskolako arauak errespetatzeko betebeharrak. Autobusetan, geltokietan edo bidean sor daitezkeen arazoak ikastolan bertan izandakotzat joko dira.

g) Instalazioak eta tresneria errespetatzeko betebeharrak.

g.1) Ikasgelak ardura osoz erabiliko dira, eta txukun eta ordenatuak eduki.

g.2) Ikasleak bere mahai eta aulkiaren ardura du, baita utzi zaion kirol-materialarena ere eta txukun mantendu behar ditu guztiak.

g.3) Ingurunea zaindu eta garbi mantentzea denon betebeharrak da.

g.4) Ikasleren batek axolagabekeriaz edo nahita ikastolaren esparruko zerbait puskatu edohondatuko balu, ordezkatzeko edo konpontzeko ardura izango luke.

g.5) Ikaslearen gauza baliotsuen erantzukizuna ekartzen duen ikaslearena da.

g.6) Ikastolara gailu elektronikoak ekartzekotan, ondo jasota egon behar dute eskola orduetan eta ezin dira erabili irakasleren baimenik gabe (Ikus X. Eranskina mugikorren erabilera egokirako protokoloan gehiago sakondu nahi izanez gero).

g.7) Ikastolako baliabiderik ezin da erabili eskola orduz kanpo eta jai egunetan irakasleren baten baimenik gabe.

## **IKASLEEN BETEBEHARREN URRAKETAK**

### **4. artikulua**

1. Ikasleen betebeharrak ez betetzea beti, gutxienez, jokabide desegokitzat hartuko da. Ez-betetze horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da.

2. Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez.

3. Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute batez ere, nola zuzentzea merezi duen jokabidea egin duen ikaslearentzat, hala gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza- jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.

### 5. artikulua Jokabide desegokiak

1. Hona hemen jokabide desegokiak zerrenda:

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak.
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezeko jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastetxeko Gobernu Organoek bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- g) Ikastolako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren Arauen edo gobernu-organoen jarraibideen aurka.

k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

m) Norberaren osasunerako eta osotasun pertsonalerako kaltegarriak diren jokaerak egitea, hala nola tabakoa kontsumitzea.

## **6. artikulua Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak**

1. Hona hemen ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zerrenda:

a) Ikastetxeetako kide bakarreko gobernu-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

d) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei kalteak eragitea, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

f) Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Oiartzo Ikastola Fundazioko Patronatuak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.



- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabide hartzen ez bada.
- m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehenez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.
- n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

## **7. artikulua Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak**

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak dira honako hauek:

- a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- c) Jazarpen sexista, honela ulertuta: nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela- eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, eta baita norberak alkohola eta bestelako drogak erabili, erakutsi eta kontsumitzea ere.
- f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzendutenean ere.
- g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.
- i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
- k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.
- l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkako bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkako bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

### 8. artikulua

Aurreko hiru artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programaturako jarduerak osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

## **HEZKUNTZA-NEURRI ZUZENTZAILEAK**

### 9. artikulua Jokabide desegokiaren zuzenketa

**Irakasleek** honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolokotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- e) Ikasgelatik kaleratzea. Ikasleren bat gelatik kaleratzen dutenean, honek irakasleen gelara joan behar du eta han esango zaio zer egin. Ebaluazio berean, inor sarritan

kaleratuko balitz, ikasle horren gurasoak edo arduradunak jakinaren gainean jarriko dira. Egoera errepikatuko balitz, ikastolak beharrezko neurriak hartuko lituzke.

f) Zuzendariaren edo ikasketa-buruaren aurrean, edo une horretan ikastetxearen zuzendaritza- taldeko beste edozein kideren aurrean aurkezteko agindua.

### **10. artikulua Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa**

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b) Kargu-hartze idatzia.
- c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, beren gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean.
- d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
- e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.
- f) Irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara edo, oro har, ikastetxera joateko eskubidea kentzea, gurasoekin edo legezko ordezkariekin elkarrizketa bat egin arte –ikasle adingabeen kasuan–. Neurri hori hiru egunez aplikatuko da gehienez ere.
- g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
- h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.
- i) Garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte,

betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

2. 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izango dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietako bat bi aldiz gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

### 11. artikulua Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein: (arau-hauste larrienak direnez gero, logikoki neurri zuzentzaile zorrotzenak aplikatuko zaizkie).

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako ikastetxeak izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako ikastetxeak izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat arestian aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.

### 12. artikulua Ikastetxez aldatzeko proposamena

1. Ikastetxez aldatzea proposatu ahal izango da honako kasu hauetan:

a) Ikasleari bi aldiz gutxienez ezarri bazaizkio ikastetxeko bizikidetzari kalte larria

eragiten dioten jokabideak zuzentzeko neurriak, 7. artikuluko 1.n) idatz-zatian adierazitakoa izanez, eta betiere lehen zuzenketatik ehun eta hoge eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.

b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabideak berdinen arteko tratu txarreko edo jazarpen sexistako egoera bat sortzen edo iraunarazten duenean.

c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.

d) Salbuespen gisa, hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen aurkako eraso oso larriak egiten direnean.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako jokabideetako baten bat egin duen ikaslea adinez heldua denean edo derrigorrezkoen ondorengo irakaskuntzan dagoenean, urrutiko irakaskuntzako, gau- eskolako edo pertsona helduentzako irakaskuntzako ikastetxe batera bideratzea proposatu ahal izango da.

3. Ikastetxez aldatzeko proposamena Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari aurkeztuko zaio, eta hark dagokiona erabakiko du, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

### **13. artikulua Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak**

1. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzaren eta erreparazioaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.

2. Neurri zuzentzaileak aplikatu behar direnean, honako hauek kontuan hartu beharko dira:

a) Hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko eta berenbetebeharrak betetzeko zenbaterainoko eragozpena eragiten dieten.

b) Hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu ahal izan duten edo paira dezaketen lesioa, jokabide horiengatik edo horien ondorioz.

c) Ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen eta haien betebeharrak betetzearen garrantzia behar bezala balioesteko aukera ematen duten zirkunstantzia pertsonalak eta sozialak.

d) Jokabidea eragin duten gertakarien egikaritzean parte hartu duten

zirkunstantziak.

3. Erantzukizuna murrizten dute eta neurri zuzentzaile malguagoak aplikatzeko aukera ematen dute, gutxienez, honako zirkunstantzia hauek:

- a) Zuzentzea merezi duen jokabidea berehala onartzea.
- b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
- c) Materialari edo ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
- d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
- e) Eragin dena bezain kalte larrikeria eragiteko asmorik ez izatea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

4. Erantzukizuna handitzen duten eta eskubideak gehiago murrizteko neurri zuzentzaileak eskatzen dituzten zirkunstantziak dira honako hauek:

- a) Zuzendu beharreko jokabidea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egitea: adin txikiagokoak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
- b) Dagokion jokabidea nahita egin izana.
- c) Apropos edo aldeztu aurretik erabakita jokatu izana.
- d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuitatu izana.
- e) Eskola-arloko ordezkari-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eraginduten egintzetarako.

## **JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK**

### **14. artikulua**

1. Zuzendaria bizikidetzarazkoak konpontzen saiatuko da Araudi honen 10. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako prozedurak erabili beharrean orain adieraziko ditugun bide alternatiboetako bat erabilita.
2. Ahal bada, hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideei kaltea eragin dien ikaslea eta jokabide horrek kaltetutako eskubideak dituzten ikasleak adiskidetzeari lortzeko ahalegina egingo da, eta baita, hala badagokio, eragindako kalte materialak edo moralak konpontzeko edo horien erreparazioa egiteko ere.
3. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak eta Irakasle Klaustroak bizikidetzari larriki kaltetu duten eta horren aurkakoak diren jokabideak zuzendu diren kasuen berri izan beharko dute bide hauen bitartez.
4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria eragin dioten jokabideak, bide alternatiboak erabilita zuzenduak, soilik ikastetxean jakingo dira, errepikatzen diren ala ez atzemateari dagokionez.

### **15. artikulua Prozedurarik gabe onartutako neurri hezitzaileak**

1. Bizikidetzaren aurkako jokabide bat edo bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabide bat gertatzen den kasu guztietan, dagokion prozedura hasi baino lehen, ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak borondatez onartutako neurriekin zuzentzen saiatu beharko du zuzendariak. Proposatutako neurrien onarpenak zehaztuko du prozedura ez hastea edo etetea, jada hasita badago.
2. Honako kasu hauek salbuetsiko dira:
  - a) Ikastetxean bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak ikasle helduek egiten dituztenean.
  - b) 12. artikuluan adierazitako kasuak.
  - c) Ikastetxean bizikidetzaren aurkako edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten izaera bereko bi jokabide gutxienez era horretan zuzentzen saiatu direnean, eta pentsatutako hezkuntza-helburua lortu ez denean.

### **16. artikulua Prozedura etetea adiskidetzeari**

1. Adiskidetzeari gertatzen bada, prozedura eten egin beharko da, eta horretarako honako



laubaldintza hauek ezinbestekoak dira:

- a) Ikasleak bere jokabidearen ondorioz eta, zehazki, hezkuntza-komunitateko kideen eskubideei kaltea eragitearen ondorioz ikastetxeko bizikidetzaren aurkako ondorioak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten ondorioak aitortzea.
- b) Barkamena eskatzea.
- c) Kaltetutako pertsonak edo, hala badagokio, ikastetxeko dagokion organoak barkamena onartzea.
- d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2. 12. artikuluan adierazitako jokabideen kasuan, adiskidetzeak ez du prozedura etengo, bainaneurri malguagoak aplikatzea zehaztuko du.

### **17. artikulua Prozedura etetea erreparazioa egiteagatik**

1. Prozedura eten egingo da, biktimari edo bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak kaltetutako pertsoneri edo erakundeei eragindako kalteari erreparazioa egiten zaionean, edo hori konpontzeko konpromisoa modu egiaztagarrian beregain hartu duenean, bai kalte materialei bai moralei dagokienez.
2. 12. artikuluan adierazitako jokabideen kasuan, erreparazioak edo erreparazioa egiteko konpromisoak ez du prozedura etengo, baina neurri malguagoak aplikatzea zehaztu ahal izango du.

### **18. artikulua Prozedura etetea familia-eremuan zuzentzeagatik**

Prozedura eten ahal izango da jokabidea, zuzendariaren aburuz, familia-eremuan behar bezala zuzendu bada edo zuzentzen ari badira, betiere 12. artikuluan adierazitako jokabideen kasuan izan ezik.

### **19. artikulua Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea**

1. Prozedura ebatzi ondoren, eta kaltetutako pertsoneri entzun ondoren, aplikaturiko neurrien baldintzapeko etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak edo, adingabeen kasuan, haren legezko ordezkariak eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela egiaztatuz gero aldeztu aurretik.
2. Zuzendu beharreko jokabideak berriz gertatuz gero, berrerortzetat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.

3. Eskola Kontseiluak eta Irakasle Klaustroak arrazoi horrengatik neurri zuzentzaileen aplikazioa eten den kasuen berri izan beharko dute.

### 20. artikulua Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzetik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzakonpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute.

2. Bizikidetzakonpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere: bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3. Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

## **NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK**

### 21. artikulua.

Ikasleei jokabideren bat zuzendu behar zaienean, arbitrariotasunik gabeko neurrien bidez zuzenduko zaie, eta beharrezkoak diren berme formalen arabera betiere. Era berean, ikasleei ezin izango zaie inoiz zigor fisiko edo moralik ezarri.

Ezein ikasleri ez zaio neurri zuzentzailerik aplikatuko jokabide desegoki gisa, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa definituta ez dauden egite edo ez-egiteengatik.

Derrigorrezkoa izango da araudi honetan araututako prozeduretako bat erabiltzea bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideak zuzentzeko, betiere aurreikusitako bide alternatiboak aplikatzea ezinezkoa izan denean.

### 22. artikulua

Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabideak lehenbailehen zuzendu beharko dira,

zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez. Ez da prozedurarik hasiko honako kasu hauetan:

- Bizikidetzari kalte larria eragin dioten egiteak edo ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeiegun baino gehiago igaro denean.
- Bizikidetzaren aurkakoak diren egiteak edo ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei egun bainogehiago igaro denean.
- Jokabide desegokia eragin duten egiteak edo ez-egiteak gertatu zirenetik hogeiegun bainogehiago igaro denean.

### 23. artikulua

Neurri zuzentzaileak honako epe hauetan aplikatzen hasi ahal izango dira:

- Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko neurrien kasuan, erreklamazioa edo errekurtoa aurkezteko epea amaitzen den unetik aurrera.
- Jokabide desegokiak zuzentzeko neurrien kasuan, erabakitzen diren unetik aurrera. Neurri zuzentzaileak ezin izango dira aplikatu honako kasu hauetan:
  - a) Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzea behin betiko erabaki zenetik ehun eta hogeiegun baino gehiago igaro badira.
  - b) Bizikidetzaren aurkako jokabideen kasuan, neurriak aplikatzea behin betiko erabaki zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro bada.
  - c) Jokabide desegokien kasuan, hogeiegun baino gehiago igaro bada.

### 24. artikulua

Adierazitako epe guztiak eskola-egunetan adierazten direla ulertuko da. Horri dagokionez, eskola- eguntzat hartuko dira irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera bitarteko astelehenetikostiralera bitarteko lanegun guztiak, betiere jaiegunak izan ezik.

### 25. artikulua Neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena duen organoa

1. Ikastetxeko irakasle guztiak dute eskumena ikasleen jokabide desegokiak lehenbailehen zuzentzeko, ikasgelan edo ikastetxeko bestelako instalazioetan edo ikastetxetik kanpo haien zaintzapean daudenean.
2. Zuzendaria da bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa. Bizikidetzaren aurkako jokabide bat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide

bat gertatzen denean aurrean dauden irakasle guztiek dute eskumena une berean ikasleari ahoz errieta egiteko, eta zuzendariarengana edo ikasketa-buruarengana edo une horretan ikastetxearen ardura duen zuzendaritza-taldeko kidearengana joatea agintzeko, pertsoneri edo gauzei eragin diezaiekeen kalteak saihesteko lehenbailehen hartu behar diren neurriak alde batera utzi gabe.

3. Oiartzo Batxilergo Ikastola Fundazioaren Patronatua da zuzendariaren erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

### 26. artikulua Aldaketak eta erreklamazioak egiteko modua eta epea.

1. Araudi honetako prozeduren egintza bakoitzaren jakinarazpenak jakinarazitako egintza gertatuondorengo lehen laneguna amaitu baino lehen egin beharko dira.

2. Araudi honetan barne hartzen diren erreklamazioak aurkezteko epea hiru egunekoa izango da.

3. Hezkuntza-komunitateko kideentzako jakinarazpenak eta zitazioak hartzaileak jaso dituela egiaztadezakeen edozein bideren bitartez egin ahal izango dira.

### 27. artikulua Erreklamazioak eta errekurtsioak.

1. Zuzendariaren erabakiaren aurka, ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Eskola Kontseiluaren aurrean, eta hark Araudi honen 37. artikuluan ezarritakoaren arabera berrikusi ahal izango du.

2. Oiartzo Batxilergo Ikastola Fundazioa Patronatuaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako dagokion Lurralde Ordezkariaren aurrean, hiru laneguneko epean, erreklamazioaren jakinarazpena jasotzen den egunetik zenbatuta.

3. Erreklamazioa ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

## **JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEKO PROZEDURA**

### 28. artikulua

1. Jokabide desegokien zuzenketa lehenbailehen eta ahoz egingo da.

2. Hala ere, jokabide desegokien errepikapenak, 6.m) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartzea eragin ahal izateko, idazki bidez jaso beharko dira honako hauek: jokabide desegokia, aplikatutako neurri zuzentzaileak, eta gurasoei edo, ikasle adingabeen kasuan, legezko ordezkariari egindako jakinarazpena.

3. Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta horien zuzenketari buruzko dokumentazio idatzia edo informatizatua suntsitu egingo da ikasturte bakoitzaren amaieran.

## **BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ETA BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETARAKO OHIKO PROZEDURA.**

### 29. artikulua

1. Ohiko prozedura erabili ahal izango da, zuzendu behar den jokabidea eragin duten gertaerak zeintzuk diren eta horien egileak nortzuk diren argi dagoenean.

2. Prozedura hori ofizioz hasiko da eta idazki bidez egingo da eta, gutxienez, honako zati hauek izango ditu: hasteko egintza; ikasleak, eta hala badagokio ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak, esateko zer duten entzutea, eta prozedura amaituko duen erabakia.30. artikulua Hasteko egintzaren gutxieneko edukia

1. Hasteko egintzak honako hauek eduki beharko ditu:

a) Gaitzesten den jokabidearen deskribapena.

b) Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa deskribatutako jokabideren batean txertatzea.

c) Gaitzesten den jokabidearen izaera aintzat hartuta, aplika daitezkeen neurriak.

d) Dagokion neurria aplikatzea erabakitzeko eskumena duen organoa eta ahalmen horiaitortzen dion agindua.

2. Era berean, Araudi honetan aurreikusitako adiskidetzeagatiko edo erreparazioa egiteagatikoeteteen kasuak barnean hartuko ditu.

### 31. artikulua Jakinarazpena.

1. Hasteko egintza gaitzesten den jokabidearen arduraduna den ikasleari jakinaraziko zaio kasu guztietan, eta baita ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkariari ere.
2. Hasteko egintzarekin batera aurretiaz ikasleak esateko zer duen entzuteko zitazioa aurkeztuko da, eta, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak esateko zer duten entzuteko zitazioa, eguna eta ordua adierazita.

### 32. artikulua Behin-behineko neurriak

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak direla aintzat hartuta, bizikidetzari horri eragindako kaltearen larritasunaren arabera, beharrezkoa dela irizten duenean, zuzendariak behin- behineko neurriak hartu ahal izango ditu ikastetxeko jardueren garapen normala bermatzeko. Neurri horien artean daude eskola batera edo guztietara bertaratzeko eskubidea etetea edo, behin- behineko, taldez aldatzea.
2. Behin-behineko neurriak prozedurak amaitu arte iraun ahal izango dute, eta ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino zorrotzagoak izan. Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso- osorik zenbatuko da, aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.
3. Hartutako behin-behineko neurriak ikasle interesdunei eta, adingabeak baldin badira, haien gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaizkie.

### 33. artikulua Entzunaldiaren izapidea.

1. Entzunaldiaren izapidearen helburua da ikasleak esateko duena entzuna izateko eta bere burudefendatzeko duen eskubidea bermatzea, hasteko egintzaren edukiei buruz eta ikastetxearen erabakiaren oinarrian dagoen informazio guztiari buruz bidezkotzat hartzen dituen alegazio guztiak egiteko aukera emanaz.
2. Ikasleak esateko duena entzutea nahitaezkoa izango da kasu guztietan, haren adina eta hartu beharreko neurria edozein izanik. Ikasle adingabeek eskubidea dute entzunaldiaren izapidean beren gurasoen edo legezko ordezkarien laguntza izateko, eta haiek, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte ikasleak bereak egin ondoren.
3. Ikasle adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak esateko dutena entzutea nahitaezkoa izango da soilik honako kasu hauetan:
  - a) Ikasle horiei gaitzesten zaien jokabideak ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragitendionean.

b) Bizikidetzaren aurkako jokabideak direnean, aplikagarri gisa jakinarazten diren neurrien artean 10. artikuluko 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan bildutakoen bat baldin badago.

4. Hasteko egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da entzunaldiko izapidea, betiere gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia nahitaezkoa ez bada, eta, bestela, gehienez ere hiru eguneko epean egin beharko da. Entzunaldiko izapidera ez bertaratzeak ez du eragotziko prozedura aurrera jarraitzea.

5. Aurkeztutako alegazioak idazki bidez jaso beharko dira.

### **34. artikulua Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea**

1. Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, eta erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero, hartarako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak ere bilduko ditu. Gutxienez, honako hauek bilduko dira:

a) Ikasleei edo, adingabeak baldin badira, haien gurasoei edo legezko ordezkariari, oro har, nola azaldu zaien zer jokabide diren ikastetxeko bizikidetzaren aurkakoak eta zeintzuk ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak.

b) Bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa hartzen diren gertakizunen deskribapena.

c) Gaitzesten zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola egiaztatzea, portaera hori zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan bilduta dagoela azalduz.

d) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita lekukoek deklazioak ere.

e) Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarririk, aringarririk, edo ikaslea errugabetzeko zirkunstantziarik ba ote dagoen ala ez. Ezarritako neurri zuzentzailea(k); hasteko egintzaren jakinarazpenean posible gisa adieraziak izatera mugatu beharko dira.

f) Aplikatzen hasteko unea: Eskola Kontseiluaren erreklamazioa aurkezteko epea amaitu arte itxaron beharko da.

g) Eskola Kontseiluari adierazitako erreklamazioa aurkeztu ahal izateko duen epea.

2. Zuzendariaren erabakia entzunaldiaren izapidea egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu

baino lehen egin beharko da, eta ikasleari eta, adingabea baldin bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi beharko zaie.

3. Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Eskola Kontseiluari eta ikastetxeko Irakasle Klaustroari, horren berri izan dezaten.

### 35. artikulua

1. Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari. Honako kasu hauetan ere helaraziko zaio idazkiaren kopia: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastetxera bertaratzeko edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.

2. Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako, edo Udaletako, Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaien neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

3. Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

### 36. artikulua Eskola Kontseiluari erreklamazioa aurkeztea

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatzen dutenean, Eskola Kontseiluak zuzendariaren erabakia berrikusi ahal izango du, eta, hala badagokio, neurriak proposatu ahal izango ditu.

### 37. artikulua

1. Zer neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta ikaslearen edo, adingabea baldin bada, haren gurasoen edo legezko ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Eskola Kontseiluak neurri hori berretsiko du, betiere Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera dela irizten badio; bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.

2. Eskola Kontseiluak bere eskumenak eskuordetu ahal izango dizkio ikastetxeak bere Araudian ezarrita dituen ordezkari batzorde bati, edo horretarako eratutako Batzorde bati, betiere kideek erabakia gehiengo osoz onartzen badute. Nolanahi ere, Batzorde Erretorako legez ezarritako gurasoen, ikasleen eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira, eta horretarako botohaztatuaren sistema ezarri ahal izango da.

3. Eskola Kontseiluaren erabakia hiru eguneko epean hartu beharko da gehienez ere.



### 38. artikulua

1. Eskola Kontseiluaren edo neurri-zuzentzaileak ezartzeko eraturako Batzordearen erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.
2. Eskola Kontseiluaren erabakia Lurralde Ordezkariari eta dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, 35. artikuluan bildutako kasuetan.

## **APARTEKO PROZEDURA**

### 39. artikulua Aparteko prozedura erabili behar den kasuak

Aparteko prozedura honako kasu hauetan erabili beharko da:

1. Zuzendu beharreko jokabideak biltzen dituen gertakizunak edo nork egin dituen kaltetuak salatu dituelako edo hirugarren baten bidez jakiten direnean, edo beste edozein arrazoi dela-eta gertakizun horiek nabarmenak ez direnean.
2. Ikastetxez aldatzeko proposamena bidezkoa den kasuetan.
3. Zuzendariak, kasuaren zirkunstantziak ikusita, neurri zuzentzaile egokia hartzeko aparteko prozedura komenigarriagoa dela irizten duenean.

### 40. artikulua Aparteko prozedura hasteko epea

Zuzendariak idazki bidez hasi beharko du aparteko prozedura, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari horri kalte larria eragin dion jokabidea eragin dezaketen gertakizunen berri izan eta hiru eguneko epean.

### 41. artikulua Hasteko egintzaren edukia

Hasteko egintzak honako hauek izan beharko ditu:

- a) Gaitzesten den jokabidearen deskribapena, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa deskribatutako jokabideren batean txerta daitekeen ala ez adierazita, eta neurri zuzentzaileak aplikatu behar izateko posibilitatea adierazita.
- b) Instruktoarearen izendapena.

c) Hala badagokio, Araudian bertan aurreikusitako bide alternatiboak erabilia prozeduraeteteke posibilitatea.

#### 42. artikulua Instruktoareen izendapena.

1. Zuzendariak instruktore bat izendatuko du ikastetxeko irakasleen artetik.
2. Izendatutako irakasleak izendapena onartu beharko du, abstentziorako arauzko arrazoietako bat dagoenean izan ezik; kasu horretan, abstenitu egin beharko da.
3. Izendapenetik kontatzen hasita egun bateko epean, instruktoreak abstentzio-idazkia aurkezten badu, emandako arrazoiak aztertu eta beste instruktore bat izendatu beharko du zuzendariak, arrazoi justifikatuak daudela iritziz gero. Bestela, hasierako izendapena berretsiko du.

#### 43. artikulua Jakinarazpenak

1. Hasteko egintza gaitzesten den jokabidearen arduraduna den ikasleari jakinaraziko zaio kasu guztietan, eta baita ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkarietara ere.
2. Zuzendariak 32. artikuluan ohiko prozedurarako adierazitako baldintza berberetan behin- behineko neurriak hartzen baditu, era berean, ikasleari eta, adingabea baldin bada, haren gurasoei edo legezko ordezkarietara jakinaraziko dizkie.

#### 44. artikulua Instruktoareen ezespina

1. Ikasleak edo, adingabea baldin bada, haren gurasoek edo legezko ordezkarietara instruktorea ezetsi ahal izango dute, arauzko ezespina-arrazoiaren artekoen bat baldin badago.
2. Hori gertatzen bada, eta instruktoreak ezespina-arrazoiak onartzen baditu, beste izendapen bat egingo da. Instruktoreak ez baditu onartzen ezesteko arrazoiak, zuzendariak bi aldeetara emandako arrazoiak aztertu eta —aldez aurretik egoki iritzitako txosten eta aholkuak jasota— hiru eguneko epean ebatzi beharko du.
3. Zuzendariaren erabakia ikasleari eta, adingabea baldin bada, haren gurasoei edo legezko ordezkarietara jakinaraziko zaie.

#### 45. artikulua Instruktoareen jardunak

Instruktoareak ikasle interesdunari gaitzesten zaion jokabidean bildutako gertakizunak jakiteko eta egiaztatzeke beharrezkotzat hartzen dituen instrukzio-ekintzak egingo ditu ofizioz. Era berean, ikasleak entzunaldiko izapidearen aurretik egin ditzakeen alegazioak

eta eman ditzakeen dokumentuak edo bestelako datuak kontuan hartu beharko ditu.

#### **46. artikulua Fiskaltzarako jakinarazpena**

1. Instruktoreak irizten badio egotzitako jokabidea edo gertakizunak zigor-arloko delitua edo hutsegitea izan daitezkeela, zuzendariari jakinarazi beharko dio, hark Fiskaltzari eta Hezkuntza Ikuskaritzari helaraz diezaien, betiere hala badagokio.
2. Ikaslea adingabea denean, hala badagokio, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, honako zirkunstantzia hauek ere jakinarazi beharko dira:
  - a) Hezkuntza-arloan zuzentzen ari direla.
  - b) Adiskidetzeta gertatu dela.
  - c) Erreparazioa gertatu dela edo erreparazioa egiteko konpromisoa dagoela.
3. Zuzendariak Fiskaltzari bidalitako jakinarazpenaren kopia bat bidaliko dio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkarari.

#### **47. artikulua Entzunaldiaren izapiderako zitazioa**

1. Instruktoreak ikaslea deituko du entzunaldia egiteko, eta, adingabea baldin bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die; era berean, eguna eta ordua jakinaraziko du. 33.3 artikuluan adierazitako kasuetan, gurasoak edo legezko ordezkariak ere deituko ditu.
2. Zitazioarekin batera idazki bat emango da, honako datu hauekin:
  - a) Gaitzesten den jokabidearen deskribapena.
  - b) Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa deskribatutako jokabideren batekin bat datorren ala ez.
  - c) Gaitzesten den jokabidearen izaera aintzat hartuta, Araudi honetan biltzen diren neurrien artetik, aplikatu daitezkeen neurri zuzentzaileak.
  - d) Dagokion neurria aplikatzea erabakitzeko eskumena duen organoa eta ahalmen horia itortzen dion araua.
  - e) Aurkako frogabideak proposatzeko posibilitatea.

#### **48. artikulua Entzunaldiaren izapidea**

1. Entzunaldiaren izapiderako, 33. artikuluan ohiko prozedurarentzat adierazten dena aplikatuko da.
2. Horretaz gain, prozeduran biltzen den dokumentazio guztia erakutsi beharko zaie ikasleari eta, adingabea baldin bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari, betiere indarreko legediak ezartzen dituen erreserba-zuhurtasunak errespetatuz, bidezkotzat hartzen duten guztia adierazteko eta bidezkotzat hartzen dituzten froga-bitartekoak proposatzeko aukera izan dezaten.

#### **49. artikulua Ebazpen-proposamena**

1. Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, instruktoarak frogak –aldeztatik zeudenak eta ikasleak edo guraso edo legezko ordezkariak aurkeztu ahal izan dituztenak– balioetsiko ditu, baita aurkeztutako alegazioak ere; gertakizunak argitzeko eta balioesteko beharrezko irizitako jardunak gauzatu ditu, eta ondorioen bat ateratzen duenean, ebazpen-proposamena idatzita aurkeztuko du.
2. Proposamena idatzi ostean, horren berri emango dio ikasleari entzunaldiaren izapiderako ezarritako epe eta baldintza berberetan deitutako beste agerraldi batean; alegazio berririk izanez gero, jaso egingo dira, eta zuzendariari helaraziko zaizkio, aldaketarik gabe.

#### **50. artikulua Aparteko prozedura amaitzeko epeak**

1. Aparteko prozedura hamabost eguneko epean amaitu beharko da gehienez ere, interesdunari eta, hala badagokio, haren gurasoei edo legezko ordezkariari hasiera jakinarazi zaien egunetan zenbatzen hasita.
2. Adierazitako epeari abstentzioen edo ezespeneen ebazpenean igarotako egunak gehituko zaizkio, eta baita ikasleak edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak beharrik gabe eragin dituzten atzerapenetan galdutako egunak ere.
3. Zuzendariak gehienez ere beste hamar egun gehiago luzatu ahal izango du epea, instrukzio- ekintzen konplexutasunak edo antzeko kontsiderazioa merezi duen beste zirkunstantzia batek gomendatzen duenean.
4. Epearen luzapen hori ebazpen-proposamenik gabe amaitzen bada, prozedura iraungitza hartuko da, betiere interesdunak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak beharrik gabe eragindako atzerapenen ondorio ez bada. Iraungipen horrek ez du oztopatzen Fiskaltzaren betebeharra zigor-arloko delitu edo hutsegite izan daitezkeen egite edo ez-egiteak jakinarazteko, betiere arlo horretan oraindik preskripzioa gertatu ez bada.

**51. artikulua Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena**

1. Ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta honako hauek bildu beharko ditu: ikasleari leporatutako gertakizunak; neurri zuzentzailea(k) ezartzeko arrazoiak; erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak, hala badagokio; neurri zuzentzaileen edukia eta horiek aplikatzen hasteko unea; erreklamazioa zein organoren aurrean aurkeztu behar den; eta erreklamazioa aurkezteko epea.
2. Ebazpena interesdunari, eta, hala badagokio, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.
3. Ebazpen hori Eskola Kontseiluari eta Irakasle Klaustroari jakinaraziko zaie, zuzendariak bidezko zat hartzen duen moduan.
4. 35. artikuluan adierazitako kasuetan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie ebazpena.

## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: EBALUAZIO PARTZIALEKO KALIFIKAZIOAREN BERRIKUSPENA/ERREKLAMAZIOA ESKATZEKO ORRIA

**Ikaslearen Datuak:**

Ikaslearen izen-abizenak: .....

Irakasgaia: ..... Ebaluazioa:.....

Gela: ..... Irakasgaiko Irakaslea: .....

Azterketa:.....

**Eskaeraren arrazoiak:**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**Eskatzailearen datuak (Guraso edo tutore legala ikaslea adin txikikoa bada)**

Eskatzailearen izen-abizenak: .....

Adierazi diren arrazoiengatik, goian aipatutako gaiko kalifikazioaren, eta horrela badagokio, azterketako notaren berrikuspena eskatzen dut.

....., 20.....(e)ko .....ren .....(e)an

Eskatzailearen sinadura:

## **EBALUAZIO PARTZIALEN BERRIKUSPEN/ERREKLAMAZIO PROZESUA:**

- Idatzizko erreklamazioak ahozko erreklamazioa eta azalpenak baliatu direnean bakarrik onartuko dira.
- Eskatera Ikasketaburuari egin behar zaio.
- Ikasketaburuak dagokion mintegiari helaraziko dio eskaera. Eskaerak planteatzen dituenak (irizpide aldaketa, bigarren zuzenketa bat, puntuazio aldaketak eta abar) mintegian aztertuko dira irakasgaiko mintegiko partaideen artean.
- Erabakia mintegiak hartuko du eta idatziz jakinaraziko dio ikasleei. Erabakiaren norabideaz gain, geratzen zaio kalifikazioa ere adieraziko du (erreklamazioak horrela eskatzen badu) eta idatzi horretan erabakiaren arrazoiak adieraziko zaizkio ikasleari.
- Erreklamazioaren ondorengo nota izango da behin betiko nota eta kalifikazio hori agertuko da ebaluazio txostenetan.
- Erreklamazioaren emaitza onartu ezean, kexa Eskola Kontseilura luzatu ahalko du ikasleak/familiak. Kexa hau egoteak ez du ebaluazio prozesua geldituko eta boletinean nota agertzea ekidingo.

## II. ERANSKINA: AZTERKETA BATEN FOTOKOPIA ESKATZEKO PROZEDURA

### Sarrera:

*2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio aginduaren 1. Kapitularen 5. Artikuluko (ebaluazioaren objetibotasuna) 3. Puntuari jasotzen da: "Ikasleek, eta ikasle adingabeen guraso edo legezko tutoreek, errendimenduaren ebaluazioan eragiten duten ebidentzia dokumentalak eskuratu ahal izango dituzte, bai eta azken ebaluazioan eragingo duten probak eta ariketak ere, behin zuzenduta daudenean; horien kopia jasotzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen badute (...) Ebaluazioan egiten diren ebidentzia dokumentalak eskuratzeko, ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu-araudian jasoko da irispidea errazteko prozedura".*

Honez gain, Oiartzoko Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak dokumentuak proba horiek berrikusteko eskubidea eta azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa jartzeko eskubidea aitortzen die. Eskubide hau 2. artikuluko d). 4 atalean ageri da eta honela dio: "Proba horiek berrikusteko eskubidea, eta azken kalifikazioen aurkako erreklamazioak jartzeko aipatutako barne-prozedura horri heldu beharko zaio, hala badagokio, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan erreklamazioa egin baino lehen".

### Prozedura:

1. Ikasleak (edo, adin txikikoa bada, haren guraso nahiz legezko tutoreek) idatzizko eskaera egin beharko dio tutoreari. (X eranskina).
2. Tutoreak zuzendaritza taldeari helaraziko dio eskaera. Hauek eskaera aztertuko dute eta erabakitakoaren berri emango diote tutoreari. Eskaera onartua bada:
  - a. Tutoreak irakasleari eskatuko dio azterketa fotokopiatzeko.
  - b. Tutoreak ikasleari prozedura honek dakarren konpromezua gogoraraziko dio:
    - i. Gaiko irakaslearekin hitz egin eta azterketa aztertzea, egin diren hutsegiteen berri izan eta hobekuntzak planteatzeko.
    - ii. Fotokopiaren pribatutasuna mantentzea eta ez zabaltzea.
    - iii. Fotokopiari arrazoietan aipatutako erabilera ematea.
3. Fotokopiatutako kopiak ikastolaren zigilua eraman beharko du.
4. Eskatutako ebidentziaren kopia ikasleari emango zaio.





## IV. ERANSKINA: AZKEN KALIFIKAZIOEN KONTRAKO BARNE-ERREKLAMAZIOAREN PROZEDURA

### Sarrera:

*2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio aginduaren 1. Kapitulua 5. Artikuluko (ebaluazioaren objetibotasuna) 3. Puntuari jasotzen da: "Ikasleek, eta ikasle adingabeen guraso edo legezko tutoreek, errendimenduaren ebaluazioan eragiten duten ebidentzia dokumentalak eskuratu ahal izango dituzte, bai eta azken ebaluazioan eragingo duten probak eta ariketak ere, behin zuzenduta daudenean; horien kopia jasotzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen badute (...) Ebaluazioan egiten diren ebidentzia dokumentalak eskuratzeko, ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendu-araudian jasoko da irispidea errazteko prozedura".*

Honez gain, Oiartzoko Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak dokumentuak proba horiek berrikusteko eskubidea eta azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa jartzeko eskubidea aitortzen die. Eskubide hau 2. artikuluko d). 4 atalean ageri da eta honela dio: "Proba horiek berrikusteko eskubidea, eta azken kalifikazioen aurkako erreklamazioak jartzeko aipatutako barne-prozedura horri heldu beharko zaio, hala badagokio, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan erreklamazioa egin baino lehen".

### Prozedura:

1. Ikastolak berrikuste-saiorako deia egingo du kalifikazioen berri eman ondoren.
2. Berrikusketan kalifikazioari buruzko erreklamaziorik egin nahiko balitz, 48 orduko epea dauka ikasleak (edo, adinez txikia bada, bere guraso nahiz legezko tutoreek) erreklamazioa idatziz egiteko. Azaldu behar du:
  - a. Zein den erreklamatzeko duen nota.
  - b. Ikaslearen iritziz zein nota beharko lukeen eta zergatik duen iritzi hori.
  - c. Zein diren erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

Erreklamazio-eskaeran azken kalifikazioaren aurka egitean justifikatzen duten alegazioak ikasketaburuari zuzendu behar zaizkio.

3. Ikasketaburuak erreklamazioa arlo horretarako mintegiari helaraziko dio. Saileko buruak sailaren ezohiko bilera batera deituko du eta bertan saileko kideek

eztabaidatuko dute ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoaren arabera egin diren eta ezarritako ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatu diren.

4. Mintegiak erabakia hartuko du 48 orduko epean, berrikusketa saioaren epea hasi zenetik kontatzen hasita.
5. Erreklamazioa onartu bada, ikasketaburuak Zuzendariari jakinaraziko dio, eta zuzenketa egingo da.
6. Erreklamazioa onartu ez bada, erreklamatzailleak erreklamazio idatzia bidali beharko dio Zuzendariari eta honek Hezkuntza Ordezkaritzara helaraziko du han erabaki dezaten.

## V. ERANSKINA: AZTERKETAK ATZERATZEAREN INGURUKO PROTOKOLOA

Sarrera:

Oiartzoko Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak dokumentuak azterketa egunak aldatzeko eskubidea aitortzen die kultur eta kirol ekintzatan diharduten ikasleei. Eskubide hau 2. artikuluko d). 7 atalean ageri da eta honela dio:

*d.7) Kultura edo kirol erakunderen batean partaide den ikasleak azterketa egunen bat aldatzeko aukera izango du erakunde horren eskariz eta zuzendaritzak onartzen badu \*\*indarrean dagoen protokoloko irizpideen arabera.*

Artikuluak argi dion bezala, zuzendaritzak du azterketak egunak aldatzeko eskumena. Baina zuzendaritzaren erabakia komunitate guztiak adostutako irizpide batzuen arabera hartzea adostu zen. Araudiko artikulua aipatzen dituen irizpideak protokolo honetan jasota daude. Irizpide hauek eta protokolo hau Eskola Kontseiluan eztabaidatu eta ahobatez onartuak izan ziren 2022ko ekainean, zuzendaritza, patronatu, irakasle, guraso eta ikasleen partehartzearekin. Irizpide hauen helburua hezkuntza jarduerak eta ikasleen garapena aberasten duten bestelako kirol eta kultur jarduerak bateragarri egitea da, beti ere hezkuntzari dagokion garrantzia emanez. Ikastolako jarduerak duen garrantzia eta lehentasuna, Ikastolako antolamendua, ikasleen aukera berdintasuna eta kirol/kultur jarduerak egiteak dituen onurak uztartu nahi izan dira protokolo honetan.

### **Kultur eta Kirol jardueraz:**

1. Azterketa datak aldatzea nahi duen ikasleak agiri ofizial baten bitartez frogatu beharko du kultur edo kirol erakunde baten partaide dela.
2. Norbere kasa jarduten duen ikasleak, inongo kultur edo kirol erakunderen partaide izan gabe, hutsegitea sortzen duen kultur- edo kirol-ekintzaren esangura frogatu beharko du.
  - a. Esanguratsua den edo ez zuzendaritzak erabakiko du. Horretarako kontuan hartuko da ikasle baten lehentasunezko betebeharrari (ikastolara etortzea eta bertako betebeharrak egitea) uko egiteko moduko garrantzia duen edo ez, Ikastolan duen eragina, ikasle guztien arteko aukera berdintasuna eta ikaslearen egoera akademikoa.

### **Azterketen atzerapena: 1. eta 2. ebaluazioetako irizpide orokorra**

3. 1. eta 2. ebaluazioko azterketa garaietan izango den irizpidearen inguruan:

- a. Bi mailetan irizpide berdina izango da ebaluazio hauetan. Ebaluazioko egunetan etorri ezin duen ikasleari azterketak atzeratuko zaizkio horrela eskatzen badu. Azterketa hauek beranduenez berreskurapenetan egingo ditu. Aukera horretan gainditu ezean, berreskurapena egiteko beste aukera bat emango zaio, ikaskideen deialdi kopuru berdina izateko.

**4. Berreskurapenetako egunetan (1. eta 2. ebaluazioa):**

- a. Bi mailetan irizpidea berdina izango da. Egun hauetan berreskurapena egin ezin duen ikasleari kirol edo kultur jarduerara joateko baimena emango zaio, azterketa data atzeratuz.
- b. Ikasle horrek ebaluazio berdinean azterketak atzeratzeko eskubidea baliatu badu 4.a puntua balio gabe geratuko da eta ez zaizkio berreskurapen garaian egin beharrekoak atzeratuko. Hots, ebaluazio horretan baimen bat eman bazaio, ez zaio bigarren baimenik emango berreskurapenean.

**3. ebaluazioko irizpidea eta salbuespena:**

5. Batxilergoko lehenbiziko mailan 3. ebaluazioko azterketak atzeratzeko aukera izango du ikasleak. Atzerapen hori baldintza hauek beteta egin beharko da:
  - a. Atzeratzen diren azterketak 1. deialdian egin beharko ditu.
  - b. 1. deialdiko aukera horretan gainditu ezean, beste aukera bat eskainiko zaio, ikaskideen deialdi kopuru berdina izateko.
  - c. Hau guztia aktak ixteko epe-mugak ezartzen duen muga barruan egingo da. Epe-muga honek atzeratzeko betarik utziko ez balu, ez litzateke baimenik emango.
6. Batxilergoko 2. mailako 3. ebaluazioan irizpide orokor bezala ez dira azterketak atzeratuko.
7. Aurreko puntuko irizpide orokorraren salbuespen modura, 3. ebaluazioko azterketak atzeratu ahal izango dira baldintza hauek guztiak betetzen direnean:
  - a. Justifikazioak taxuzkoa izan beharko du. Agiria erakunde baten izenean, hutsegitearen datak argi eta garbi azaltzen direlarik eta erakundeko arduradun batek sinatuta egon beharko du.
  - b. Atzeratzen diren azterketak ezingo dira 1. deialdiarekin inolaz ere gainjarri. Beraz, atzeratzen zaizkion azterketak egiteko epe-muga 1. deialdiaren hasieran izango da.
  - c. Azterketa datak ez zaizkio aurreratuko, beti atzeratu egingo dira:
    - i. Azterketa garaia aurretik ezin izango du ebaluazioko azterketarik egin.
    - ii. Ebaluazioko azterketa taldeak egin behar du lehenbiziki.
  - d. Azterketak modu presentzialean egin beharko dira.

- e. Egun batean ikasle batek egin ahal duen azterketa kopuru gomendagarria 3 azterketara mugatzen da.
- f. Zuzendaritzak izango du azken hitza eta egutegi alternatiboa egiteko eskumena. Atzerapena eskatzen duen ikasleak zuzendaritzak osatutako egutegi berrira egokitu beharko du.
- g. Baimena izan ez eta hala eta guztiz ikasleren batek kultur edo kirol ekintzara joan nahiko balu azterketetara huts eginaz, bere ardurapean izango litzateke. Egin gabeko azterketak 1. deialdian egin behar lituzke eta ez luke aukera gehiago izango.

#### **Deialdi finalak: ohikoa eta ez-ohikoa**

- 8. Ohiko deialdia (finala): ohiko deialdia deialdi ofiziala da. Hezkuntzak proposatutako datetan egin beharreko deialdia da eta ez du atzerapenerako aukerarik ematen, akta ofizialak ditu-eta. Ohiko deialdian ez da azterketarik atzeratuko kultur edo kirol ekintzengatik.
- 9. Ez-ohiko deialdian (2.deialdia): Deialdi hau irakasgaiak gainditzeko azkeneko aukera da. Deialdi ofiziala, data ofizialekin eta akta ofizialekin. Deialdi honetan ere ez da azterketarik atzeratuko.

#### **Salbuespenak:**

- 10. Protokolo honetatik kanpo geratzen dira 971/2007 Errege Dekretuak jasotzen dituen errendimendu altuko kirolari izaera duten, goi mailako kirolari izaera duten edo dekretuak jasotzen dituen salbuespenen baldintzak betetzen dituzten ikasleak.
  - a. Legeak berak agintzen duen moduan frogatu beharko du izaera hori ikasleak (BOE).
  - b. Ikasle hauek lege honek agintzen dituen malgutasun, deialdi kopuru eta salbuespenak baliatzeko aukera izango dute protokolo honetan jartzen duenetik at.

#### **Prozedura:**

- 11. Azterketak dataz aldatzeko eskaera egiteko prozedura honakoa izango da:
  - a. Kasua edozein dela ere, garaiz komunikatu beharko da.
  - b. Tutoreari jakinarazi behar zaio. Tutoreaz gain, inplikaturako gaietako irakasleek eta zuzendaritzak eskaeraren berri izan beharko dute.
  - c. Eskaera ez da zertan idatziz egin behar, baina erantsi beharreko justifikanteak paperezkoa izan beharko du.

- i. **3. ebaluazioko atzerapenak duen garrantziaren eta konplexutasunaren ondorioz, azterketa hauen atzerapen eskaera idatziz egin beharko da.**

## VI. ERANSKINA: IKASLEEN ASANBLADA DEIALDIA

DATA: \_\_/\_\_/\_\_

Aztertuko den gaia azaldu:

Bozketa proposamena azaldu:

Lanaldia eteteko proposatzen den data eta ordua:

Data: \_\_/\_\_/\_\_ Ordua: \_\_: \_\_

Deialdiaren egilea:

Ikastetxearen zigilua

Ikasleen ordezkaria



## VII. ERANSKINA: ASANBLADA AKTA

DATA: \_\_\_/\_\_\_/\_\_\_

Zabalduriko komunikatua azaldu<sup>1</sup>:

Bozketa

**Bozkaturiko erabakia:**

**Bozketaren emaitzak:**

| Bozka | Kopurua |
|-------|---------|
|       |         |
|       |         |
|       |         |
|       |         |

**Ikastolan dagoen ikasle kopurua:**

**Emaitzen aurrean harturiko erabakia:**

**Ikastetxearen zigilua**

**Ikasleen ordezkaria**

<sup>1</sup> **Oiartzo Batxilergo Ikastola, bertako Zuzendaritza eta ikasleen Ordezkaria ez dira komunikatuaren erantzule egiten. Agiri honek egiaztatzen duen bakarra, ikasleek asanblada burutu dutela eta bera sinatzen dutenek ez dute zertan deialdiaren arrazoiekin edo zabalduriko dokumentuarekin harremanik izan behar.**

## **VIII. ERANSKINA: 2. MAILAKOEN IKASBIDAIAREN PRESTAKUNTZA**

Oiartzo Batxilergo Ikastolaren sorrera urtetik, ikasbidaia antolaketan ikasleek esku dago, ez da ikastolaren ekintza. Ikastolak ez du bere gain hartzen ikasbidaia antolaketan, ikasleek ekimen bat izanik.

Ikasleek adina, heldutasun maila eta gaitasunak kontuan hartuta, arazorik gabe aurrera eraman dezaketen ekintza da, eta beren formazioan jardueran positibotzat jotzen dugu.

Hala ere, hurrengo atalean ikastolaren parte-hartzea norainokoa den zehaztu nahi da, eta zertarako konpromisoa hartzen duen:

1. Ikastola konprometitzen da bidaia antolaketan ikasleek ematen dituzten urratsak behatzeko.
2. Arazo iturririk ikusiko balitz, gurasoei informatzeko.
3. Bidaia antolatzeko aurkeztu diren entitateen edo pertsonen egokitasuna baloratzeko ikastetxera datozen neurrian. Baina ez du antolatzailearen jardunari buruzko ardurarik hartuko.
4. Antolakuntzarako baimena izango dute ikasleek ikastolako instalazioak erabiltzeko, beti ere ordu libreetan.
5. Ikastetxeak ikasleei ziurtatu behar dien gela denda bezala erabiltzen utziko die, bidaia gastuentzat diru iturri izan dadin. Ikasle guztiek dute dendaz baliatu eta dirua lortzeko eskubide berdina.
6. Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du urtero 2. mailako guraso nahiz legezko ordezkari direnei honen guztiaren berri emateko.

Azkenik, Oiartzoko Klaustro eta Zuzendaritzaren iritziz, zera esan beharra dago: ikasbidaia bakarrik bultzatzen saiatu behar da, eta ez talde desberdinak leku desberdinetara edo garai desberdinetan. Bestalde, eta ikuspegi akademikotik begiratuta, irakasleok bidaia behin Selektibitatea pasata egitea gomendatzen dugu.

## **IX. ERANSKINA: IRAKASLE EDO IKASTOLAKO BESTE LANGILE BATEK IKASLEEN ESKUBIDEAK USTEZ URRATZEN DITUENEAN BETE BEHARREKO PROTOKOLOA**

Protokolo honen helburua ikasleen eskubideak bermatzea eta ustez, irakasle edo ikastolako beste langile batek urratzen dituenetan bete beharreko pausoak jasotzea da. Horretarako, bi dokumentu hartu dira oinarri gisa: Oiartzo Batxilergo Ikastolaren Barne Araudia eta *201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak*, ikasleen eskubideak jasotzen dituen I Kapituluaren Lehen atala. Honez gain, irakasleen funtzioak ere jasotzen dira, estuki lotuta baitaude ikasleen eskubide batzuekin.

### **IKASLEEN ESKUBIDEAK:**

Ikasleen eskubideak Oiartzoko Barne Araudian jasotzen dira. Araudi honen helburua elkarbizitza bermatzea da eta izaera hezitzaile eta elkar zaintzailea du. Bertan jasotzen diren ikasleen eskubideak hezkuntza erakundeko kide guztiek aitortu eta errespetatu behar dituzte. Bestalde, *201/2008 Dekretuak* ere ikasleen eskubideak jasotzen ditu I kapituluaren lehen atalean. Dekretu honen helburua, honakoa da: ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetzaren esparrua arautzea, gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezen. Alde batetik, bizikidetzaren positiboki bultzatzean datza, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan gaineratu behar dituzten planekin bat etorriz. Hauek dira jasotako eskubideak, hain zuzen ere:

#### **6. Heziketa osoa**

7. Arreta berehala jasotzeko eskubidea
8. Ikasle adingabekoen babesa
9. Eskola-errendimenduaren balorazio objektiboa
10. Eskola- eta lanbide-orientazioa
11. Pertsonaren integritatea, nortasuna eta duintasuna
12. Kontzientzia-askatasuna
13. Biltzea, elkartzea eta adieraztea
14. Adierazpen-askatasuna

15. Elkartzea
16. Parte hartzea
17. Informazioa
18. Aukera-berdintasuna
19. Gizarte-babesa
20. Ikasleen eskubideak betetzeko bermeak

Protokolo honen helburuari jarraiki, goian aipatutako eskubideen artean, eta inolako kategorizaziorik egin gabe, arreta eta zaintza berezia eskaini zaie azpian zabalago adierazitako eskubideei:

**7. artikulua.- Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.**

1. Ikasle adingabeek ikastolaren nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.
2. Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. [...].

**8. artikulua.- Ikastolak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.**

1. Ikasle adingabeek ikastolak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.
2. Ikastolako gobernu-organoek behar diren neurriak hartuko dituzte bereziki ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaien [...].

**11. artikulua.- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.**

1. Ikasleek beren osotasun fisikoa eta morala errespetatu diezaieten eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratatu iraingarri edo laidogarria emango.[...].

**IRAKASLEEN FUNTZIOAK:**

Hauek dira, besteak beste, irakasleek bete behar dituzten funtzioak:

- Arduratzea eta ahal bada aurrea hartzea ikasleen zailtasun ezberdinei. Horretarako, behar dituzten ikasleei egokitze curricularrak prestatzea Orientazio Departamentuaren lankidetzaz eta ikasle horien tutoreekin koordinatuz.
- Ikasleen integrazioa erraztea, bai bere taldean bai ikastolako eguneroko bizitzan ere, eta jarrera parte-hartzailea bultzatzea.
- Ikasle bakoitzarekin bere arazo, jokabide, kezka, portaera eta lan errendimenduaz egin eta baloratzea.
- Zuzendaritzak eskatutako informazioa ematea, eskatzen den momentuan.
- Ohiko funtzionamendutik kanpo gertatzen diren egoeren berri (hartutako erabakiak,...) ikasketaburua edo zuzendaria informatzea.

### **IRAKASLE EDO IKASTOLAKO BESTE LANGILE BATEK IKASLEEN ESKUBIDEAK USTEZ URRATZEN DITUENEAN BETE BEHARREKO PAUSOAK**

1. Ikastolako langile batek jakiten badu beste langile batek ikasle baten eskubideak ustez urratu dituela, berehala jakinaraziko dio etapako zuzendariari.
2. Ikasleek konfiantzazko irakasle, tutore edo zuzendariarengana jo dezake ikaslearen eskubideak ustez urratu egin direla sentitzen duenean. Gurasoek ere egoeraren berri eman diezaioke ikaslearen tutoreari. Honek berehala jakinaraziko dio etapako zuzendariari.
3. Zuzendariak barne-ikerketara aginduko du. Horretarako, besteak beste, entzunaldiak egingo dira ustezko urraketa jasan duen ikaslearekin (eta haren gurasoekin) eta ustezko urraketa egin duen langilearekin. Egindako barne-ikerketaren akta jasoko da.
4. Eskubide urraketa gertatu dela frogatua gelditzen bada, indarrean dagoen araudiak ezarritako neurri zuzentzaileak ezarriko ditu zuzendaritzak.

## **X.ERANSKINA: MUGIKORREN ETA ERLOJU ADIMENTSUEN ERABILERA EGOKIRAKO PROTOKOLOA**

### **Sarrera:**

Telefono mugikorrek irakas-ikaskuntza prozesuan lagungarriak izan daitezkeen baliabideak dira, baina erabilera desegoki bat emanez gero, prozesua kaltetu dezaketen gailuak ere badira. Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu Oiartzoko ikasleek baliabide honekin elkarbizitza osasuntsu bat izaten ikastea, eskaintzen dituen abantailak aprobetxatuz eta sortu ditzaken oztopo edo mehatxuak ekidinez.

Mugikorren erabilera egokia izateko Ikastolako eremuan eta eguneroko bizitzan, jarraibide hauek adostu eta jaso dira, protokolo honetan jasoz. Protokolo hau izango da irakasleen gida mugikorren erabilera egokia bermatzeko orduan.

1. Ikaslearen eskubide eta betebeharren dokumentuko 3. artikuluko g.6 atalak ezartzen duenaren arabera, ikasleak bere mugikorra jaso eta itzalia edo isildua eduki beharko du saioetan.
2. Irakasleak mugikorren erabilpena baimendu dezake. Berak baimenduko du noiz, noiz arte eta zein baldintzatan erabili ahal izango den mugikorra ikasgelan.
3. Mugikorraren edota erloju adimentsuaren erabilera desegokiren bat ikusiz gero, neurriak hartuko dira jarrera hori berriz gerta ez dadin.
4. Mugikorraren edota erloju adimentsuaren erabilera desegokiak klase baten martxa arrunta oztopa dezake; beraz, ikaslearen eskubide eta betebeharren dokumentuak jasotakoaren arabera, jarrera desegoki bat izan daiteke.
5. Hitzaldiak, bisitak eta antzeko ekintzak ikastolako saio arruntak bezalakoak dira; beraz, mugikorren eta erloju adimentsuen erabilerak arau berberak izango ditu.
6. Irteeretan eta antzeko ekintzetan, bisita eta programatutako ekintzetatik at, mugikorrek eta erloju adimentsuak erabili ahal izango dira, beti ere, irteeraren bizikidetzan eta elkar ezagutze helburua oztopatzen ez badute. Hau gertatuz gero, irakasleek mugikorren edota erloju adimentsuen erabilera mugatu ahal izango dute.

## **Arau haustearen aurrean ezarriko diren neurriak**

1. Mugikorraren edota erloju adimentsuen erabilera desegokiak klase baten martxa arrunta oztopa dezake; beraz, ikaslearen eskubide eta betebeharren dokumentuak jasotakoaren arabera, jarrera desegokia izango da.
  1. Kasu hau gertatzean, jarrera desegoki baten ondorio arruntak izango ditu.
  2. Ikasleak ondorio hauek onartu ezean, ikasleen eskubide eta betebeharren dokumentuak 5. Artikuluan ezartzen dituen ondorioak izango ditu.
2. Ikasle batek gailu digital partikularren erabilerarako arauak urratuko balitu, hauek izan daitezke neurriak:
  1. Mugikorra edota erloju adimentsua kentzea eguna amaitu arte eta ikastolatik irteterakoan itzultzea jardunaldia amaitutakoan.
  2. Egoera larrietan edo errepikakorretan: mugikorra edota erloju adimentsua kentzea aste baterako. Ikasleak, aste batez, ikastolara etortzean egunero mugikorra edota erloju adimentsua zuzendaritzan utzi beharko du, eta honek egunaren amaieran jasoko du.
3. Ikaslea arau hausteren berrerorlea balitz gauza bera egingo da, baina tutoreak ohartarazpenean bizikidetzarako aurkakoa dela adieraziko du, Ikaslearen eskubide eta betebeharren dokumentuko 5. Artikuluan agertzen den bezala.
4. Hirugarren aldia balitz bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuko da, Ikaslearen eskubide eta betebeharren dokumentuko 6. artikuluan agertzen den bezala. Horren aurrean hartuko liratekeen neurriak aipatutako dokumentuaren 10. artikuluan agertzen dira
5. Jarrera desegokiarekin jarraituz gero, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da, Ikaslearen eskubide eta betebeharren dokumentuko 7. artikuluan agertzen den bezala. Horren aurrean hartuko liratekeen neurriak aipatutako dokumentuaren 11. artikuluan agertzen dira

